



Irratigintzaren bultzatzaile historikoa hil zen apirilaren 29an Iruñean: **Juan Lekuona Urrutia** (Tolosa, 1928).

Lekuona Jesusen Lagundian sartu zen hamasei urte zituela eta euskal kulturaren murgildu zen berehala. 1962an Loiolako Herri Irratiko zuzendari izendatu zuten, irratia sortu eta urtebetera, eta haren zuzendaritzapean iritsi ziren euskarazko lehen emanaldiak bertara. 1970ean Donostiako Herri Irratiko zuzendari izendatu zuten eta, 1976an, *24 Orduak Euskaraz* ekimena antolatu zenean, bertan parte hartu zuen Juan Lekuonak.

Bi alditan izan zen Donostiako Herri Irratiko zuzendari: lehenengoa, 1970etik 1989ra, eta bigarrena, berriz, 1993tik 2002ra, Herri Irratia COPEtik banatu zen aldian.

72 urte zituela erretiratu zen eta azken hiru urteetan Iruñeko San Inazio ikastetxean bizi izan zen.

Goian bego.



Aurtengo martxoaren 18an, Gasteizen, Kataluniako Generalitateko Hizkuntza Politikarako idazkari nagusiak,

Miquel Pueyo jaunak, eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, Patxi Goenaga jaunak, hizkuntza-politikaren gaineko protokolo orokorra sinatu zuten.

Horri jarraiki, maiatzaren 12 eta 13an lan-bilera izan zuten Bartzelonan, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako eta Kataluniako Generalitateko ardura-dunek **2005eko ekintza-plana** prestatu eta finkatzeko. Ekintza-plana lantzen hasteko, honako gai hauek aurreikusitako dira: Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Berriak, esparru sozio-ekonomikoa eta Hizkuntzaren eta Hizkuntza-politikaren Adierazle-sistema.



Ekainaren 24an baztarrara egingo du Euskaltzaindiak. Egun horretan, kide berri batek sarrera ofiziala egingo du erakundearen, **Adolfo Arejita**, alegia.

Arejita iazko ekainaren 25ean Larresoron egin zuten bilkuran izendatu zuen Euskaltzaindiak euskaltzain oso eta, orain, sarrera-hitzaldia egingo du. Ondoren, diploma eta domina eskainiko dizkio akademiak bilbotar irakasleari.

Adolfo Arejita Andolin Eguzkitzaren hutsunea beteko du Euskaltzaindian.



Euskarazko prentsaren lehen urratsak hementzigarren mendearen erdi aldekoak dira. Ipar Euskal Herrian *Eskualduna* (1887-1944) sortu zen, orain arte izan den euskara hutsezko aldizkaririk iraunkorrena. Joan den mendearen erdi aldera,

berriz, *Herria* (1945) sortu zen. Hego Euskal Herrian 1920 eta 1936 bitarteko garaia aipatu behar da, orduan sortu baitziren *Ekin*, *Eguna*, *Zeruko Argia* etab. Hain zuzen, 2.000 alea argitaratuko du uztailean *Zeruko Argia*-ren jarraipen den **Argia** aldizkariak.

Zeruko Argia 1919ko urtarrilean agertu zen lehenengo aldiz, Iruñeko kaputxinoen eraginez eta Damaso Intza zuzendari zuela. Erijiyo-gaiak lantzen zituen aldizkari honek era guztietako irakurleak zituen Euskal Herriko bazter guztietan. Espainiako Gerra Zibilaren ondoren ezarri zen diktaduraren ondorioz euskara errotik desagertu egin zen prentsatik. 1963an, ordea, berpiztu egin zen *Zeruko Argia*. 1980an, berri egin zen aldizkaria, *Argia* izena hartu zuen eta informazio orokorreko agerkari bihurtu zen. Gaur egun, bera da era horretako astekari bakarra, Euskal Herri osoan euskara hutsez zabaltzen dena. Erabat koloretan argitaratzen da eta estetika modernoa du. Horrekin batera, bertsio digitala eta *Sareko Argia* izeneko aldizkari elektronikoa (www.argia.com) ere baditu, era askotako kultur produktuen eskaintzarekin batera.

Zorionak, beraz, *Argia*-ri!



Euskararen transmisioari eta erabilerari buruzko jardunaldia antolatu zuen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, Soziolinguistika Klusterraren laguntzarekin. Maiatzaren 26an eginiko egun erdiko saioak bi zati izan zituen.

Lehenengo zatian, Iñaki Arrutik (Lasarte-Oriako Udala), Joaquim Torresek (Katalunia) eta Jon Aizpuruak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) ponentzia bana aurkeztu zuten hizkuntzaren transmisioaren, eta bereziki familia bidezkoaren, nondik norakoak ezagutzeko. Ondoren, Soziolinguistika Klusterreko Rosa Ramosek zuzendutako mahai-ingurua egin zen. Bertan, belauzuek zuzendutako hizkuntzaren transmisioa gauzatu zedin eragin beharreko esparruetako ordezkariak elkar-tu ziren: Joaquim Torres (Katalunia), Mikel Zalbide (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila), Erramun Osa (Ikastolen Elkarteak), Jaime Altuna (Urtxintxa aisialdi taldea) eta Manu Gañan (Alkarbide).



Juan San Martin hil zen maiatzaren 30ean, herriaren maitale handia. San Martin Eibarren jaio zen 1922ko ekainaren 23an. Euskaltzain oso zen 1964ko abenduaren 18tik eta makina bat lan burutu zuen erakundearen baitan: idazkari, diruzain eta

Jagon sailaren buru izan baitzen. Euskal Autonomia Erkidegoko lehen Arartekoa izan zen 1989tik 1994ra. Ombudsman Europar Institutuko buru izan zen 1994tik 1995era bitartean. Liburu-egile, itultzaile, poeta, mendizale, arte ederretan aditu, edizio-paratzaile... Behargin porrokatua, Euskal Herriak ezagutu duen kultura-eragile eta euskara-bidegile-rik finenetakoa izan zen Juan "Juanito" San Martin.

Agur eta ohore.



A sko dira euskararen alde saiatu diren euskaltzaleak. Sarri, horiek egindako lana ez da behar bezala zabaldu. Orain 20-30 urte saiatu zirenen lan isila preziatzen hasita gaude, ordea. Bi euskaltzale adinekok, Imanol Mujikak eta Bittor Kapanagak, jaso zuten omenaldia da lekuko. Euzko Izaera, Mikoleta, Bizi Hitza eta Ena elkarteek antolatu zuten, Donostiako Zorroaga egoitzan.

Imanol Mujika (Bergara, 1921) euskal nortasunari eta hizkuntzari buruzko zenbait lanen egile da. Horien artean dira, adibidez, *Lingüística Basca, lainkoa Sabiduría de la Naturaleza, Euzko Elea Etorburuko Esan Naia* eta *Teoría de la Formación de las Lenguas Vista a la Luz del Euzkera*. Mujikak, besteak beste, milaka hitzen etimologia azaldu du, bokal eta kontsonante bakoitzarentzat proposatutako esanahia oinarri harturik.

Bittor Kapanaga (Otxandio, 1925) hizkuntza, mitologia eta beste zenbait gai aztertu ditu *Euzko-Gogoa* eta *Zeruko Argia* aldizkarietan eta *Euskaldunon Egunkaria* egunerokoan. Gainerakoan, *Euskera erro eta garra* izeneko liburua du lanik ezagunena.



Ilustraziogileak zorioneko dira gurean: **Mikel Valverde** marrazkigile gasteztarrak SM Nazioarteko Ilustrazio Saria irabazi du *Paula en Nueva York* komiki-proiektuagatik. Valverdek udazkena arte izango du

lana bukatzeko epea, eta orduantxe argitaratu du SM argitaletxeak. Hainbat irudi eder eta ezagun egindakoa da. Besteak beste, Bernardo Atxagaren ipuinetako Banbulo eta Xola txakurrak.



Hamaika jardun-esparrutan erabiltzen da euskara: administrazioan, irakaskuntzan, lan-eremuan..., eta, bakoitzean, tornu berezia du gure hizkuntzak. Duela gutxi, berriz, bestelako perspektiba batez jabetzeko deia egin du Bilgune Feminista elkarteak, **euskara ez sexista**

sustatzeko asmotan. Bilguneak gaiari buruzko gogoeta egin eta zenbait erabilera eztabaidatzeko deia egin die euskaldunei. Egindako proposamenen artean ditugu, adibidez, "Izena + gizon" erako egiturak bazterzea eta "-ari" atzikiaren edo "langile" hitzaren egiturak erabiltzea; "-sa" atzikia bazterzea. Era berean, "giza-" errotik sorturiko esanahi orokorreko hitzen konnotazioa sexista salatu du Bilguneak.



Ibilien egiten da bidea, eta CAF-Elhuyar sarrien XI. edizioa dugu frogia. Zientziaren dibulgazioa helburu duten sariek udaberriarekin batera jakinarazi zituzten aurtengo saridunen izenak. Begoña Arratek jaso zuen sari nagusia, *Gure alde basatian barna* artikulua. Bigarren saria, berriz, Jokin Lapaza, Manuel Mendez eta Eneko Salaberriarentzat izan zen *Kakalardoak, basoko berri-emaileak* lanagatik. Gazteentzako sari berezia, azkenik, Ibon Odriozolaren *A zer molekula usaina!* artikulua jaso zuen.



Euskara bidea egiten ari da teknologia berrietan ere. Bateko softwarea, besteak beste ataria... orain, berriz, txat berri bat erabilgai dugu. Oihutegia du izen (www.oihutegia.com), eta txat grafikoa da, hau da, erabiltzaileak itxura aukeratzeko modua eskaintzen da bertan. Mozorrotu eta gero, Interneteko beste aldean nor dagoen aurkitzeko bidea egiten da, harekin harremanetan jarri eta hitz egin.

Inguru arrotzik gabe, txat berriak Bilboko Plaza Barria eta bertako arkupeak ditu eszenatokizat.

Animatu enpresak garatu du, Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza.



A rlo sozio-ekonomikoan ere euskararen normalizazioa iristeko ekimen berria aurkeztu du Artez Euskara Zerbitzuak. Aipatutako arloan, eguneroko harremanetan baliagarri diren dokumentu eta inprimaki estandarren euskarazko fondoa osatu du www.agiriak.net helbidean.

Zerbitzu berri honek dokumentuak erraz eta azkar deskargatzeko aukera eskaintzen du. Hori ez ezik, norberaren erakunde edo enpresaren inprimakiak ere pertsonalizatzen ditu.



Euskarazko komunikazioaren gaineko doktore-tesia egin eta laborpena argitaratu du Aitor Zuberogoiak irakasleak. Lanak **Bidegorriak hizkuntzentzat (Euskarazko komunikazio-esparrua trinkotzeari buruzko burutazioak)** du izena. Bertan, euskarak prentsa elebidun modernoan duen presentzia aztertu du Zuberogoiak. Adierazi duenez, aho biko ezpata du euskarak prentsa elebiduna. Izan ere, euskararen gutxieneko presentzia bermatzen badio ere, mugatu egiten dio garapen kuantitatiboa eta eragotzi, berriz, kualitatiboa.



Euskarazko haur eta gazte literaturari buruzko lana kaleratu dute Manu Lopez Gaseni eta Xabier Etxaniz Erle irakasle eta idazleek. **90eko hamarkadako Haur eta Gazte Literatura** du izenburua eta, bertan, XX. mendearen 70eko hamarkadako neke aldia abiapuntutzat harturik, 80ko indartzea eta 90eko finkatzea aztertu dituzte egileek. Zehatzago esanda, euskarazko haur eta gazte literaturaren sendotze iraunkorraren klabeak agerian uzteko asmoa du lan honek.



Aisialdiko aukera atsegina aspaldi hasi ziren euskaraz eskaintzen gure pailazoak. Hogeita hamahiru urte bete dituzte lan horretan **Txirri, Mirri eta Txiribito** pailazoak. Sasoi hartan, Donostiako Kresala elkartearen bildu eta euskara etxe-txokotik atera behar zutela erabaki zuen Xabier Otaegi, Jose Inazio Ansorena eta Antton Ezeiza hirukoteak. Kixki, Mixki eta Kaxkamelon jaio ziren eta ezagunak egin ziren *sagarra mantzana, ikatza carbón, mujer andriata hombre gizon* kantari. Gero, orain dela 20 urte, ETBren aukera baliatu zuten. Ordurako, Txema Vitoria ari zen Antton Ezeizaren ordez.

Gaur, hogeita hamahiru urte eta gero, bizi-bizi dira gure pailazoak, haurren irri eragingarri.

A sko dira uda euskaraz ikasteko eta hobetzeko baliatzen duten ikasleak eta, urtero bezala, **udako ikastaroen eskaintza** egin dute oraindik orain HABE erakundeak eta euskaltegiek. Ohi denez, askotariko ikastaroak izango ditu aukeran euskara-ikasleak, uztailen hasi eta irailera bitarte. Familia osoarentzako ikastaroak dira batzuk, euskalkiak lantzekoak beste batzuk; badira ikastaro trinkoak, badira barnetegiak, badira prestakuntza-saioak...


Horiekin batera, horra "Egonaldiak familia euskaldunetan" programa ere.

Oporraldia euskaraz gozatzeko modua du, beraz, hizkuntza hobetzea helburu duenak.

Ondoko mapan, barnetegiak egingo direneko herriak ageri dira.



M unduan gehien irakurtzen den liburua omen da Biblia. Euskal Herriak ere lehentasun eman dio liburuari. **Elizen Arteko Biblia** argitaratu zen 1994an eta 14.600 aleko tirada izan zuen. Harrezkero, lan haren hainbat argitalpen egin da, bertsio ezberdinetan bada ere: dela formatu txikiagoan, dela Itun Berriaren argitalpenak, lapurtera-behenafarreraz, zubereraz... Oraindik orain, berriz, **Elizen Arteko Bibliaren** bigarren argitalpenak ikusi du argia, azken urteetan Euskaltzaindiak harturiko erabakiak bertan txertaturik. Aurrekoan ez bezala, argitalpen berrituak CDA dakar.



Boiseko Euzkaldunak elkarteak **Jaialdi** izeneko ekitaldi handiaren deia egin du. Bost urterik behin egiten den festa erraldoia uztailaren 27tik 31ra bitarte ospatuko da Idahoko Boise hiriburuan eta estatu horretako euskaldunetz gain milaka espero dituzte ondokoetatik ere (Nevada, Kalifornia, Washington, Oregon...), bai eta urrutiagoetatik ere (New York, Australia, Alaska, Euskal Herria...).

Jaialdi egiten den bosgarren aldia da eta, aurrekoetan ikusi denez, munduko euskaldunen topaleku da Boiseko festa.



Euskal Kultur Erakundeak gune berri bat apailatu du bere web atarian: **bertsulari.com**. Ipar Euskal Herriko bertsolaritzaren iragana eta oraina zertan den azaltzea du helburu guneak, bertsolaritzaren alderdi soziala eta kulturala balora dadin. Hainbat dokumentu (soinudunak batzuk, ikus-entzuzkoak beste batzuk) eta azalpen eskainiko dira bertan, publiko zabala eta bereziki euskara gutxi ala batere ez dakiena ere gune honetara hurbil dadin.





Kalean da **IRALE** programaren baitako ikastaro-eskaintza berria bezain oparoa. Hainbat dira hizkuntza-gaitasuna jorratu eta sendotu aldera aurtengo uda partean zein 2005-2006 ikasturtean zehar irakasleek hartu ahal izango dituzten eskolak.

Jakina denez, **IRALE** programaren helburu nagusia da **EAEko** unibertsitatez kanpoko ikasketxeetan lanean ari diren irakasleak euskaldundu edo alfabetatzea. Irakasleak euskaraz irakasteko gaitzen laguntzea edo irakasleek euskararen oinarriko ezagueria izatea ere **IRALE**ren helburu dira. Oinarriko prestakuntza-mailak gainditu dituztenei, berriz, gehigarriko ikasbideak eskaintzen dizkie programak.

Herri-ikastetxe eta ikastetxe pribatuetaiko irakasleentzat eraturik dago **IRALE**, eta irakasle-sistema elebiduntzeko oinarri-oinarriko lana egin du 1980-1981 ikasturtean abiatu zenetik, milaka eta milaka ikasketariri lagunduz joan deneko 25 urte honetan.

Aurtengo udako eta hurrengo ikasturterako aurkezpen-txosten osoa, www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net helbidean.

Goian esandako zeregin horretan Eusko Jaurlaritzak 5,2 milioi euro erabiliko du.



E**A**Eko Hezkuntza Sailak derrigorrezko eskolaldira-ko **Euskal Curriculum**a lantzen jardun du azken urteetan, Euskal Herri osoko hainbat eragileren laguntzaz. Orain, berriz, oinarriko curriculum hori 2006-2007 ikasturterako prest izango dela adierazi dute. Curriculumaren helburu da Euskal Herriak duen berariazko kulturaren transmisioa ziurtatzea, Europa eta mundu zabaleko kultur ondareari uko egin gabe.

Curriculumak, bestalde, euskaldun bizi ahal izateko beharrezkoak izango dituen gaitasunak

Curriculumak, bestalde, euskaldun bizi ahal izateko beharrezkoak izango dituen gaitasunak

eman behar dizkie ikasleari, europar gizartearen barruan eta globalizazio garaian.

Dagoeneko, hezkuntza munduko 22 erakundek eta eragilek sinatu dute, **EAEko** Hezkuntza Sailarekin, Euskal Curriculuma aurrera ateratzeko konpromisoa. Tartean dira Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak eta Konfederazioa, Elizbarrutiko Ikastetxeak, sare guztietako ikasleen gurasoen elkarteak, Sortzen Ikasbatuaz elkarteak eta beste.



Gazteen hizkerari buruzko jardunaldiak egin ziren apirilaren 6 eta 7an Azpeitian, Gipuzkoako Urtxintza Eskolak eta Itakun elkarteak antolatuta. Bertan, egungo gazteek darabilten hizkeraren egoera aztertu zen, batetik, eta hizkera egokia bultzatzeko jarraitu beharrek bidea zein den zehaztu zen, bestetik. Ehun lagunek baino gehiagok hartu zuten parte jardunaldietan, gazteak batzuk, adituak berriz, beste batzuk. Hauen artean ziren Kike Amonarriz, Joseina Etxeberria, Asisko Urmeneta, etab.

Azterketa egin eta ondorioak bildu zituzten parte-hartzaileek. Horietan nagusia, nazio mailako gazte hizkera lortzeko pausoak eman behar direla.

Jardunaldien gaineko kronika eta ondorioei buruzko informazio osoa, www.aisia.net helbidean.



Euskal Idazleen Elkarte (EIE) aurrera begira ari da. Udaberrian, 2005-2008 urte aldirako Plan Estrategikoa onartu zuen. Planaren arabera, elkarlana bultzatuko du EIEk eta, horrekin batera, erakundearen deszentralizazioa. Hasteko, indartu egingo ditu Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian dituen presentzia eta ordezkaritza, herrialde guztietan ere dinamikak eratzeko asmotan. Kanpora begira egiten duen lanari dago-kionez, EIEk itzulpenen bidea lantzen segituko du.



Ohi denez, **Euskal Herriko Unibertsitatearen Uda Ikastaroak** helduko dira laister. Ikastaroen XXIV. edizioa izango da aurten eta ekainaren azken astetik iraileko bigarren aste arte iraungo dute.

Lau ataletan banatu dute aurtengo egitaraua: Bizitzeko ikasten, Elkarrekin bizitzeko ikasi, Aurrera egiten ikasi eta Irakasteko ikasten. Horien barruan, berriz, era guztietako ikastaro eta jakintza-gaiak lantzeko aukera eskainiko da. Informazio osoa, **UPV-EH**ren web gunean, www.sc.ehu.es helbidean.

Udako ikastaro gehiago ere izango da, ordea. Besteak beste, **Udako Euskal Unibertsitateak** (UEU) antolatzen dituenak. Ikastaldien 33. edizioa beteko da aurten eta uztailearen 4tik 22ra bitarte egingo da Biarritzen, Eibarren eta Iruñean. Hizkuntzaritza, Informatika, Arkitektura, Filosofia eta bestelako gaiak landuko dituzte ikastaldiotan.

Berri gehiago, **UEU**ren web gunean, www.ueu.org helbidean.



Edizio digitala besterik ez duten aldizkari genearien jardun genuen aurreko alean. *Sustatu.com*, *Erabili.com*, *Bizkaie.biz*, *Sareko Argia* eta beste aipatu genituen orduan. Oraingoan, **www.kontaizu.net**-en zer-nolakoen nondik norakoak aztertuko ditugu. Bizkaiko Ikastolen Elkartearen aldizkari digitala. Hilabetekaria da nerabe eta gazteen artean euskaraz irakurtzeko zaletasuna sustatu eta sendotzea du helburu. Ondorioz, haien gustuko gaiak lantzen dituzte bertan: musika, zinema, kirolak, denborapasak, komikiak...

Aldizkariak, bestalde, bertan parte hartzeko aukera ere eskaintzen du, dela iritziak bidaliz, kezka azalduz edo erreportajeak idatziz.

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu inprimaki honen bitartez jarritako zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuak ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saileko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza / Donostia kalea, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia-San Sebastián, 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba) / Tel.: 945 01 81 16 • e-posta: l-Sosoaga@ej-gv.es

